

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4878

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 6koa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita ondoko izendapena: Entzia (ES2110022), Urkabustaizko Irla-hariztiak (ES2110003) eta Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko abuztuaren 4ko Aginduaren bitartez, hau erabaki da: Arabako lurralde historikoan Entzia (ES2110022) Batasunaren Intereseko Lekuetako (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea behin-behinean onartzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko abuztuaren 4ko Aginduaren bitartez, hau erabaki da: Arabako lurralde historikoan Urkabustaizko Irla-hariztiak (ES2110003) Batasunaren Intereseko Lekuetako (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea behin-behinean onartzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko abuztuaren 11ko Aginduaren bitartez, hau erabaki da: Arabako lurralde historikoan Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Batasunaren Intereseko Lekuetako (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea behin-behinean onartzea.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua-rekin bat, eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bategineko 22.2 artikulua-rekin bat, ingurumena babesteko helburu duten irabazte-asmorik gabeko erakundearen eta administrazioen entzunaldi-izapideak egin behar dira; baita jendaurrean jarri ere, eremuen izendapenak, honako hauek adierazita: lekuen kartografia mugapenak, izendapenak justifikatzen dituzten batasunaren intereseko habitat motak eta flora eta fauna espezieak, kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekuak kontserbatzeko helburuak eta arauak, eta jarraipen programak.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.c) artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehengoa.– Jendaurrean jartzea honako izendapen hau: Entzia (ES2110022), Urkabustaizko Irla-hariztiak (ES2110003) eta Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Batasunaren Intereseko Lekuetako (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea; jendaurrean jarriko da 2 hileko epean, EHAAn iragarki hau argitaratu eta biharamunetik, 2015eko urtarrilaren 14ra arte. Epe horretan, egoki irizten dieten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.– Goragoko paragrafotan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da bai egoitza elektronikoan: www.euskadi.net/natura2000, bai EAeko Administrazio Orokorraren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian, helbide honetan:

2014ko azaroaren 14a, ostirala

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Eusko Jaurlaritza
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 6a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.